6. *Oficios Auxiliares*: Se entenderá por tales aquellas actividades que, no siendo propias de oficios contemplados en este Convenio, contribuyen a la actividad que caracteriza a la Empresa, tales como los oficios metalúrgicos (torneros/as, caldereros/as, etc.), personal carpintero, albañiles, electricistas, etc. Se distingue entre Personal Montador-Instalador y de Mantenimiento. Las definiciones específicas son las que consten en sus respectivos Convenios Colectivos.

7. *Personal Peón*: Es la persona mayor de dieciocho años a quien se le confían trabajos elementales, para los cuales no se requiere preparación alguna ni conocimiento teórico-práctico de ninguna clase, requiriéndole, predominantemente, una aportación de esfuerzo físico, la atención debida y la voluntad de llevar a cabo el trabajo que se le ordene. Puede servir, indistintamente, en cualquiera de las secciones de la Empresa.

8. *Personal Conductor de máquinas elevadoras o transportadoras*: Es el que maneja vehículos de este tipo. Será Personal Oficial de tercera cuando maneje máquinas de hasta 1.500 kg. de carga, y de segunda, cuando sean de carga superior. Si para el normal desarrollo de su trabajo, este Conductor/a necesita imprescindiblemente estar en posesión del correspondiente permiso de conducir, tendrá la categoría de Personal Oficial de segunda.

9. *Personal Conductor mecánico*: Es el que, provisto de carnet de la clase correspondiente al vehículo que tiene encomendado, mantiene el funcionamiento del mismo y se encarga de la ejecución del transporte. Será Personal Oficial de primera, cuando tenga capacidad suficiente para ejecutar, como Mecánico/a-Conductor/a, toda clase de reparaciones que no requieran elementos de taller mecánico. En los demás casos, será Personal Oficial de segunda, salvo los y las conductores de motocarros, motos y similares, que serán Personales Oficiales de tercera.

10. *Personal Operario de trabajos complementarios*: Son quienes, con una preparación práctica de los trabajos propios de este ciclo de producción, realizan labores de carácter complementario, que exigen una cierta atención y responsabilidad, dentro de las secciones productivas a que afecta este Convenio.

Se mantienen la estructura, definiciones y descripciones de puesto de trabajo, contenidos en los apéndices B y C de este Convenio, en todo lo relacionado con este tipo de trabajos.

**B) ARTE GRAFIKOEN SEKTOREKO  
LANPOSTUEN DEFINIZIOAK**

**Teklari monotipistak:** Ofizial horrek makina monotipiaren teklatuaren gainean makina horietan egin daitezkeen testu mota guztiak osatzen ditu. Makinaren oinarriko mekanismoak behar bezala ezagutu beharko ditu; horretaz gain, matxura txikiak konpontzen jakin beharko du. Gutxieneko konposizioa ordu bakoitzeko 6.000 letra izango da, behar bezala zuzenduta. Tipografo Ofizialaren kategoriako langileak, edo lan zailenak —estatistikak eta formulak— behar adinako bikaintasunez egiten dituzten langileak lehen mailako Ofizialak izango dira. Gainerako langileak bigarren mailako Ofizialtzat hartuko dira.

**Monotipiaren eta tipo solteen urtzailak:** Langile horiek tipo solteak eta oro har, material tipografiko guztia urtzen duten makinez arduratzen dira, eta makina horiek konpontzen dituzte. Makina horiek osaera jarraituaren edo urtze errepikatuaren bidez urtzen dute. Makina puntuan jartzeko egiaztatutako gaitasuna duten langileak lehen mailako Ofizialak izango dira. Gainerako langileak bigarren mailako Ofizialak izango dira.

**Linotipistak:** Langile horiek linotipia-makinetan eta antzekoetan egin daitezkeen lan tipografiko guztiak osatzen dituzte makina horietan, eta adierazitako makinaren oinarriko mekanismoak ezagutu beharko dituzte. Langile horiek lehen mailako Ofizialak izango dira.

Linotipistek eskuz egindako gutxieneko produkzio hau izango dute:

- Linotipia edo intertipo motako 6.000 letra.
- Tipografiako 4.000 letra.

Hori guztia gaztelaniaz argi eta garbi idatzitako originalekin, eta 14 zizerotik gorako eta 22 zizerotik beherako neurrietan, 8, 9 edo 10 gorputzekin.

**Fotokonposizioko makinariak:** Langile horiek fotokonposizioko makinak erabili eta doitzen dituzte, eta alde aurretik zulatutako zintatik edo bilkaritik, konposizio jarraitua filmatu eta pelikula baten gainean justifikatzen dute. Langile horiek lehen mailako Ofizialak izango dira. Soilik makinak erabiltzen dituzten langileak, baina doitzen ez dituztenak, bigarren mailako Ofizialak izango dira.

**Tipografoak:** Langile horiek gramatikari buruz behar bezalako ezagutza izanik, material egokia erabiliz inprimatuko diren moldeak eta kontramoldeak osatu eta doitzen dituzte. Lehen eta bigarren mailako Ofizialak dira.

**Platineroak:** Langile horiei forma mota guztiak ezartzea, uztartzea eta banatzea dagokie forma horiek inprimatzeko. Bigarren mailako Ofizialen lanbide-kategoria izango dute.

Tipografiako lanak egiten dituzten Platineroak lehen mailako Ofizialak izango dira.

**Fotokonposizioko batera-egileak:** Langile horiek fotokonposizioak eta erreproduktzioak datozen pelikulak erabiliz orriak doitzen dituzte, Tipografoek erabiltzen duten metala erabili ordez, pelikulak erabiliz.

**Teklari zulatzaileak:** Langile horiek zintaren gainean (justifikatua edo kilometrikoa), tekletan edo antzeko makinetan betetzen dituzte makina horietan egin daitezkeen konposizioak edo fotokonposizioak lan guztiak, eta makina horiei buruz behar adinako ezagutza mekanikoa izan beharko dute, baita makina horien funtzionamenduari buruzko ezagutza ere. Horretaz gain, gramatikari eta puntuazioei dagokienez, prestakuntza egokia izan behar dute.

**Tipografia Zuzentzaileak:** Langile horrek gramatika eta erabiltzen diren tipografia-arauak ezagututa, inprenta-probak, eta hala bada gorkio, makina-orriak erantzukizun osoz irakurtzen ditu, baita ortografia eta tipografia zuzendu ere.

**Egiaztatzaileak:** Langile horiek, behar duten praktika izanik, originala aurrean dutela, zuzentzaileak egiten duen irakurketa aztertzen dute, eta zuzentzaileak egindako zuzenketak egiaztatzen dituzte.

**Probatzaile tipografikoak:** Langile horiek makina egokiak erabiliz zuzenketarako probak lortzen dituzte. Lantegiko Laguntzaileak izango dira.

**B) DEFINICIONES DE PUESTOS DE TRABAJO EN EL  
SECTOR DE ARTES GRÁFICAS**

**Teclistas monotipistas:** Es el Personal Oficial que compone sobre un teclado de máquina monotipia toda clase de textos de posible ejecución en dichas máquinas. Deberán conocer con perfección los mecanismos esenciales de la máquina, así como la reparación de pequeñas averías. La composición mínima, debidamente corregida, será la de 6.000 letras-hora. Tendrán la categoría de Personal Oficial de primera las personas que procedan del Personal Oficial cajista, o quienes realizan los trabajos más complejos con suficiente perfección, tales como los de estadística y fórmulas. El resto tendrá la consideración de Personal Oficial de segunda.

**Fundidores/as de monotipia y tipos sueltos:** Es el personal operario que atiende y repara las máquinas que funden tipos sueltos, así como todo el material tipográfico en general, en composición seguida o en fundición repetida. Tendrán categoría de Personal Oficial de primera quienes tengan aptitud comprobada para poner la máquina a punto. El resto será Personal Oficial de segunda.

**Linotipistas:** Es el personal operario que compone en máquinas linotipias y similares todos los trabajos tipográficos de posible ejecución en las mismas, debiendo conocer los mecanismos esenciales de tales máquinas. Tendrán la categoría de Personal Oficial de primera.

Los y las Linotipistas tendrán la producción mínima manual siguiente:

- 6.000 letras de linotipias o intertipos.
- 4.000 letras de tipografía.

Todo ello a base de original claramente escrito y redactado en castellano y en medidas no inferiores a 14 cíceros ni superiores a 22, con los cuerpos 8, 9 o 10.

**Maquinistas de fotocomposición:** Son los y las operarios/as que manejan y ajustan las máquinas de fotocomposición y a partir de una cinta o rollo perforado previamente, filman composición seguida y justifican sobre una película. Tendrán la categoría de Personal Oficial de primera. Quienes solamente manejan, pero no ajustan, serán Personal Oficial de segunda.

**Cajistas:** Son los y las operarios/as que, con conocimientos gramaticales suficientes, componen y ajustan, mediante material adecuado, moldes y contramoldes destinados a la impresión. Se dividen en Personal Oficial de primera y segunda.

**Platineros/as:** Son los y las operarios/as que tienen a su cargo la imposición, casado y distribución de toda clase de formas para la impresión de las mismas. Tendrán la categoría profesional de Personal Oficial de segunda.

Los y las Platineros/as que realizan trabajos de caja tendrán la categoría profesional de Personal Oficial de primera.

**Compaginadores/as de fotocomposición:** Son los y las operarios/as que utilizando las películas que provienen de la fotocomposición y de la reproducción, ajustan páginas utilizando las películas en lugar del metal que emplean los y las Cajistas.

**Teclistas perforistas:** Son los y las operarios/as que componen sobre cinta, bien justificada o kilométrica, en teclas o máquinas similares, todos los trabajos de composición o fotocomposición de posible ejecución en las mismas, debiendo tener los suficientes conocimientos de la mecánica y funcionamiento de las mismas así como la preparación en puntuaciones y gramaticalmente.

**Personal Corrector tipográfico:** Es aquel que con dominio de la gramática y las normas tipográficas al uso, se ocupa de leer y corregir ortográfica y tipográficamente las pruebas de imprenta y, en su caso, los pliegos de máquina, con plena responsabilidad.

**Atendedores/as:** Son los y las operarios/as que, con la práctica necesaria, atienden con el original a la vista, la lectura que realiza el corrector, comprobando las correcciones advertidas por éste.

**Personal Pruebero tipográfico:** Son los y las operarios/as que sirviéndose de máquinas apropiadas obtienen pruebas para la corrección. Tendrán la categoría de Auxiliar de Taller.



**Matrizegileak:** Langile horiek material egokiaren gainean tipografia-gainazal lauak edo okerrak kopiatzen dituzte kautxuzko klitxeak, estereotipia edo galvanoak lortzen direnean erabiltzeko. Era berean, plastikozko edo kautxuzko gaietan behin betiko klitxeak lortzeko teknika ezagutu behar dute. Horretaz gain, klitxe horiek inprimatzeko makinetan erabiltzeko moduan egoteko nola prestatu eta errektifikatu behar diren jakin beharko dute. Lehen eta bigarren mailako Ofizialen lanbide-kategoria izango dute.

**Estereotipiako urtzailleak:** Langile horiek Matrizegileek egindako matritzeetatik abiatuta, molde tipografiko lauak edo okerrak urtu, muntatu eta errektifikatutakoan, inprimatzeko makinetan erabiltzeko prest uzten dituzte.

**Galvanoplastak:** Langile horiek Matrizegileak egindako matritzeetatik abiatuta, elektronikara erabiliz, metal-geruzak egiten dituzte. Geruza horiek behar bezalako urtzearekin betetzen dira, muntatu egiten dira eta inprimatzeko makinetan erabiltzeko prest uzten dira. Batzuetan estaltze-lana honak hauen bitartez egiten da: prozedura elektrolitikoak, estereotipiako zuriuneak, fotografatuak eta abar, erresistentzia handiagoa ematearren. Era berean, sakongrabatze-lantegietan kobreztatze- eta kromatze-lanak egiten dituzten langileak daude kategoria honen barnean hartuta.

**Argazkilariak:** Langile horiek argazkiak inprimatu behar dituzte erreproduktzio-kameretan, eta eskatutako neurriaren arabera, originala handitu edo txikiagotu egingo dute; beltzean edo koloretan erreproduzitzeko prozedurak ezagutu beharko dituzte, baita maskaren bitartez zuzentzeko sistemak ere. Horretaz gain, beira-bilbea eta kontaktua erabiltzen jakin behar dute, baita argazkiak erreproduzitzeko behar diren laborategiko lanei dagokien oro ere.

**Berrukitzaileak:** Langile horien zeregina erreproduzitu behar diren originalak berdintzea eta zuzentzea da, baita Argazkilariak emandako negatiboak eta positiboak erabiliz, behar diren ukituak eta zuzenketak egitea ere -tonuari eta koloreari buruzkoak- erreproduktzio original egokia lortzearen.

**Fotografatuaren intsolatzaileak:** Langile horiek filmen pelikula-tzea egiteko ardura dute pelikula horiek intsolatzeko. Fotografatuaren erabiltzen diren xaflen emulsio-, intsolazio- eta errebelatu-prozesu guztia ezagutzen dute.

**Koloreko Fotografatzaileak:** Langile horiek xaflen negatiboetan edo positiboetan behar diren ukituak, zuzenketak, erreserbak eta mozketak egiten dituzte originalen erreproduktzio egokiak lortzeko, bai balioei dagokienez, bai kolorearen tonuari dagokienez ere.

**Zuzeneko fotografatzaileak:** Zuzeneko negatiboa intsolatu eta errebelatu den xafaren gainean langile horiek behar diren erreserbak eta ukituak egiten dituzte, azidoaren bitartez grabatzen direnean tonu-errendimendu egokia lortzeko. Bigarren mailako Ofizialak izango dira.

**Lerroko fotografatzaileak:** Langile horiek lerroko negatiboa intsolatu den plantxan ukituak eta grabatuak egiten dituzte azidoekin, eskuz edo makinan, inprimatzeko klitxea lortzeko. Koloreetako probetako langileak lehen mailako Ofizialak izango dira, eta zurieta-koak eta beltzeakoak bigarren mailakoak.

**Diseinugileak/muntatzaileak:** Langile horiek filmak eta testuak muntatzen dituzte beiran, plastikoan edo beste edozein euskarritan, kolorea egokituz edo ez. Film eta testu horiek «offset» motako xafak edo tipografia-xafak prestatzeko erabiliko dituzte edota sakongrabatuko arraboretan edo serigrafiko pantailetan.

**Prozesu digitalaren Diseinugileak/Muntatzaileak:** Horretarako jakintza, trebetasuna, lanbide-gaitasuna eta/edo lanbide-erperientzia izanik, inprimaketarako formak lortzeko trazatuak, inposatzeak eta/edo muntaketak egiteaz arduratzen diren pertsonak dira, formatu desberdinetako (pdf, pdf/x, ps, tiff, etab.) artxibo digitalak programa egoki bidez modu digitalean egokitu eta ezartzen dituzte, muntaketak egin eta konprobatzen dituzte, behar bezala erregistratzeko behar diren elementuak erabiliz eta inposaketak plotter proben edo laser proben bitartez konprobatuz. Horrez gain, guztia prest uzten dute, horren ondoren, plantxarako, pelikularako edo antzeko teknologiarako (CTF, CTP...) irteera digitalerako tratamendurako, edo langile horiek prozesua amaitu egiten dute.

**Matriceros/as:** Son los y las operarios/as que reproducen superficies tipográficas planas o curvas sobre material adecuado para su empleo en la obtención de clisés de caucho, estereotipia o galvanos. Asimismo, deben conocer la técnica de la obtención de los clisés definitivos sobre materias plásticas o de caucho y su preparación y rectificación para dejarlos en estado de utilizarlos en máquinas de impresión. Tendrán la categoría profesional de Personal Oficial de primera y de segunda.

**Fundidores de estereotipia:** Son los y las operarios/as que, a partir de las matrices facilitadas por los Matriceros/as, funden moldes tipográficos planos o curvos, los montan, rectifican y los dejan listos para su utilización en máquinas de impresión.

**Galvanoplastas:** Son los y las operarios/as que, a partir de las matrices facilitadas por un Matricero/a, realizan, por medio electrónico, cascarillas metálicas, las cuales se rellenan con una fundición adecuada, se montan y se dejan listas para su utilización en máquinas de impresión. A veces se limita la labor a recubrir mediante procedimiento electrolítico, blancos de estereotipia, fotografados, etc., a fin de darles más resistencia. Tendrán la categoría profesional de Personal Oficial de primera y segunda. Se considerarán igualmente incluidos quienes efectúan las operaciones de cobreado y cromado en los talleres de huecograbado.

**Personal Fotógrafo:** Son los y las operarios/as que tienen como misión impresiones fotográficas en las cámaras de reproducción, ampliando o reduciendo el original según el tamaño exigido, conociendo los diversos procedimientos de reproducción en negro o color, así como los distintos sistemas de corrección por máscaras, empleo de trama de cristal y contacto, y cuanto concierne a los trabajos de laboratorio precisos para la reproducción fotográfica.

**Retocadores/as:** Son los y las operarios/as que tienen como misión igualar y corregir originales a reproducir, así como, a partir de los negativos y positivos facilitados por los Fotógrafos, realizar los retoques y correcciones necesarios, tanto de valor tonal como color, con el fin de obtener una buena reproducción original.

**Personal Insolador de fotografado:** Son los y las operarios/as encargados de efectuar el pelicolado de filmes para la insolación, y que conocen todo el proceso de emulsión, insolación y revelado de las planchas utilizadas en fotografado.

**Personal Fotografador de color:** Es el personal operario que realiza los oportunos retoques, correcciones, reservas y mordidos sobre negativos o positivos de planchas para obtener correctas reproducciones de los originales, tanto en sus valores como en su tono de color. Tendrán la categoría profesional de Personal Oficial de primera.

**Personal Fotografador de directo:** Son los y las operarios/as que, sobre una plancha en la que se ha insolado y revelado un negativo de directo, realizan las reservas y retoques necesarios para obtener un buen rendimiento de tonos al ser grabada por ácido. Tendrán la categoría profesional de Personal Oficial de segunda.

**Personal Fotografador de línea:** Son los y las operarios/as que, a partir de una plancha en la que se ha insolado un negativo en línea, realizan las operaciones de retoque y grabado con ácidos, a mano o en máquina, para obtener el clisé para la impresión. Tendrán la categoría profesional de Personal Oficial de primera los y las de color, y de segunda, los y las de blanco y negro.

**Trazadores/as montadores/as:** Son los y las operarios/as encargados de efectuar el montaje de filmes y textos, con o sin ajuste de color, sobre cristal, plástico o cualquier otro soporte, que utilizarán en la preparación de planchas «offset» o tipografía o sobre cilindros de huecograbado o en pantallas de serigrafía.

**Trazadores/as montadores/as del proceso digital:** Son las personas que con los conocimientos, dominio, destreza de las competencias profesionales y/o experiencia profesional se ocupa de la realización de trazados, imposiciones y/o montajes para la obtención de las formas para impresión, adaptando e imponiendo digitalmente mediante programas adecuados los archivos digitales en diferentes formatos (pdf, pdf/x, ps, tiff, etc.), realiza y comprueba los montajes empleando los elementos necesarios para su perfecto registro, comprobando las imposiciones mediante pruebas plotter o pruebas láser, y deja todo preparado para su posterior tratamiento en salida digital a plancha, película o tecnología asimilable (CTF, CTP...) o los que incluso finalizan el proceso.

**Klitxeak muntatzen dituzten zurginak:** Langile horiek zuzene-ko eta lerroko klitxeak bukatu eta muntatzen dituzte. Klitxeak fresatzeko, biselatzeko, eta muntatzeko gaitasuna dute. Bigarren eta hirugarren mailako Ofizialak izango dira.

**Kardamatzaileak:** Langile horiek xaflak ezabatu, leundu eta kardamatzen dituzte behar diren baliabideak erabiliz. Lantegiko Laguntzaileak dira.

**«Offset»-eko pasatzaileak:** Ofizial horiek testua, lerroak eta erretikulatuak muntatu ondoren, xaflak -zinkezkakoak, aluminiozkoak edo polimetaliakoak- emulsionatu, intsolatu, grabatu eta amaitzen dituzte. Intsolazioa egiteko makina errepikatzaileak edo txasis pneumatikoak erabiltzen dituzte. Lehen eta bigarren mailako Ofizialak izango dira.

**Erreportistak:** Langile horiek litografia-teknika behar den bezala ezagutzen dute, eta inprimatzeko xaflak edo harriak egiten dituzte marrazki originalaren kalkoen bitartez, eta horretarako paper bustia edo antzekoak erabiltzen dituzte. Lehen eta bigarren mailako Ofizialak izango dira.

**Sakongrabatzaileak:** Langile horiek arrabolak sentsibilizatze-ko, intsolatzeko eta grabatzeko behar diren lanak egiten dituzte, arrabol horiek sakongrabatuan inprimatzeko.

**Tipografia-proben Tiratzaileak:** Ofizial horiek grabatzaileak emandako xaflan betetzen dute beren eginkizuna eta probak lortzen dituzte prentsa batean. Proba horiek beltzean edo koloretan egin daitezke, Ataleko Buruak edo Ukitu Emaileak agindutako kolore-sortaren arabera. Langile horiek inprimaketa tipografikoaren teknikak jakin beharko dituzte, baita koloreen nahasketari buruzko oro ere. Kolo-reetako probetako langileak lehen mailako Ofizialak izango dira, eta zurietaoek eta beltzeoek bigarren mailakoak.

**«Offset» proben Tiratzaileak:** Ofizial horiek pasatzaileak emandako xaflan betetzen dute beren eginkizuna eta probak lortzen dituzte prentsa batean. Proba horiek beltzean edo koloretan egin daitezke, Ataleko Buruak edo Ukitu Emaileak agindutako kolore-sortaren arabera. Langile horiek inprimaketa tipografikoaren teknikak jakin beharko dituzte, baita koloreen nahasketari buruzko oro ere. Kolo-reetako probetako langileak lehen mailako Ofizialak izango dira, eta zurietaoek eta beltzeoek bigarren mailakoak.

**Eskuz edo beranez grabatzen dutenak:** Langile horiek metal eta material mota ororen gainean grabatzen dute erliebe baxuan, erliebe altuan edo beranlanean. Lehen mailako Ofizialen lanbide-kategoria izango dute.

**Pantografistak:** Langile horiek planoak irakurtzen dituzte, eta edozein motatako ereduak edo grabatuak egiten dituzte hiru dimentsiotan edozein motatako materialetan, pantografoa erabiliz. Lehen eta bigarren mailako Ofizialak izango dira.

**Grabatzaile kimikoak:** Langile horiek metalaren edo beste material batzuen gainean grabatzeko daude prestatuta bereziki, eta horretarako azidoak erabiltzen dituzte. Lehen mailako Ofizialak izango dira.

**Trokelgileak:** Langile horiek piezak edo grabatuak moztu eta erreproduzitzen dituzte. Tresneria, moldeak, trokelak eta kontra-moldeak prestatzeko eta muntatzeko erabiltzen den teknika ezagutu behar dute. Lehen eta bigarren mailako Ofizialen kategoria izango dute.

**Bulkanizatzaileak:** Langile horiek pasta prestatzen dute, kontra-moldeak erreproduzitu eta gomazko zigiluen fabrikazioan goma bulkanizatzen dute.

**Bujidoreak eta pikatzaileak:** Langile horiek ikur, forma, tipo, letra eta marrazki artistiko mota oro —baita miniaturak ere— pikatzen eta tartekatzen dituzte.

**Arrabol prestatzaileak eta leuntzaileak (sakongrabatua):** Estalketa bainuen teknika ezagutu gabe, langile horiek arrabolak kobreztatuta eta leuntzen dituzte sakongrabatzaile Ofizialaren edo Ataleko Buruaren zuzendaritzapean. Lantegiko Laguntzaileak dira.

**Muntatzaile flexografikoak:** Bulkanizatzaileak egindako gomak edo kautxuak jasotakoan, langile horiek dituzten arrabol-sortan enkua-dratzen eta itsasten dituzte; horretaz gain, egiten dituzten lanen uztar-keta eta doiketa mugatzen dute.

**Carpinteros/as montadores/as de clisés:** Son los y las operarios/as encargados del terminado y montaje de los clisés de directo y de línea estando capacitados para efectuar el fresado, biselado y montaje a la altura patrón de los clisés. Tendrán la categoría profesional de Personal Oficial de segunda y tercera.

**Graneadores/as:** Son las y los operarios/as encargados del borrado, pulido y graneado de planchas por medios apropiados. Se clasifican como Auxiliares de Taller.

**Pasadores/as de «offset»:** Es el Personal Oficial que, a partir del montaje del texto, líneas y reticulado, realiza las diferentes operaciones de emulsión o insolación, grabado y terminado de planchas, tanto de cinc o de aluminio como polimetálicas, sirviéndose para la insolación de máquinas repetidoras o chasis neumáticos. Tendrán la categoría profesional de Personal Oficial de primera y de segunda.

**Reportistas:** Son los y las operarios/as que, conociendo a la perfección la técnica litográfica, realizan planchas o piedras de impresión por medio de calcos del dibujo original, sirviéndose de papel húmedo o similares. Tendrán la categoría profesional de Personal Oficial de primera y segunda.

**Huecograbadores/as:** Son los y las operarios/as que realizan las operaciones necesarias para la sensibilización, insolación y grabado de cilindros para la impresión en huecograbado.

**Personal Tirador de pruebas tipográficas:** Son los y las oficiales que ejecutan su función a partir de las planchas facilitadas por el Grabador/a, obteniendo pruebas en una prensa en negro o en color de acuerdo con la gama marcada por el Jefe/a de la Sección o Retocador/a, debiendo conocer las técnicas de impresión tipográfica, así como todo lo referente a la mezcla de colores. Tendrán la categoría profesional de Personal Oficial de primera los y las de color y de segunda, los y las de blanco y negro.

**Personal Tirador de pruebas «offset»:** Son los y las oficiales que ejecutan su labor sirviéndose de las planchas facilitadas por el Pasador, realizando pruebas en una prensa en negro o color, de acuerdo con la gama marcada por el Jefe/a de la Sección o Retocador/a; deberán conocer lo referente a la mezcla de colores. Tendrán la categoría de Personal Oficial de primera los y las de color, y de segunda, los y las de blanco y negro.

**Grabadores/as manuales o a buril:** Son quienes graban en bajo relieve, alto relieve o burilado sobre toda clase de metales y materiales. Tendrán la categoría profesional de Personal Oficial de primera.

**Pantografistas:** Es el operario u operaria capaz de interpretar planos, ejecutar cualquier tipo de modelo o grabado en tres dimensiones sobre toda clase de materiales, usando un pantógrafo. Tendrán la categoría profesional de Personal Oficial de primera y de segunda.

**Personal Grabador químico:** Son los y las operarios/as preparados especialmente para el grabado sobre metal u otros materiales mediante el uso de ácidos. Serán Personal Oficial de primera.

**Troqueladores/as:** Son los y las operarios/as que tienen como misión cortar o reproducir piezas o grabados; deben conocer la técnica de preparación y montaje de utillajes, moldes, troqueles y contramoldes. Tendrán la categoría de Personal Oficial de primera y de segunda.

**Vulcanizadores/as:** Son los y las operarios/as que preparan la pasta, reproducen contramoldes y vulcanizan la goma en la fabricación de sellos de goma.

**Bujidores/as y caladores/as:** Son los y las operarios/as especialistas en el calado y arquetado de toda clase de emblemas, formas, tipos, letras y dibujos artísticos, aun miniaturas.

**Preparadores/as de cilindros y pulidores/as (huecograbado):** Es el personal operario que, sin conocimiento de la técnica de baños galvánicos, ejecuta las operaciones de cobreado y pulido de cilindros bajo la dirección del o la Oficial/a huecograbador o Jefe/a de Sección. Se clasificarán como Auxiliares de Taller.

**Personal Montador flexográfico:** Son los y las operarios/as que, al recibir las gomas o cauchos del Vulcanizador, rectifican los sellos, los escuadran y los pegan en la gama de cilindros de los que disponen y limitan la casación y ajuste de los trabajos que realizan. Tendrán la categoría de Personal Oficial de primera y segunda.

**Esmalteztatzaileak:** Langile horiek grabatu kimikoan edo mekanikoan aukeratutako guneen kolorea ematen dute eskuz edo makinan bidez; horretarako koloreak eta bernizak prestatzen eta nahasten jakin behar dute.

**Minerva-makinariak:** Normalean minerva izeneko sistemako edozein makina gidatzeko gaitasuna dute langile horiek. Makina horietan platina eta tinpanoa lauak dira.

**Makina lau eta arraboldunetako makinariak:** Langile horiek lauak izeneko edozein makina mota gidatzeko gaitasuna dute. Makina horietan inprimatzeko modua platina batean dago eta papera arrabol inprimatzailearen bitartez eramaten da.

**Markatzaileak:** Langile horiek eskuz sartzen dituzte paperak inprimatzeko makinetan. Hirugarren mailako Ofizialak dira.

**Kolore bateko tipografia-birakariko makinariak:** Langile horiek adierazitako makina erabiltzeko gaitasuna dute. Makina horretan inprimatzeko elementua eta xaflako elementua zilindrikoak dira. Makina horiek bobinaren edo plegu solteen bitartez elika daitezke. Edozein lan mota, kolore batean edo bi koloretan, inprimatu ahal badute, inprimatzeko tipografia-teknika guztiak eta kolore-nahasketari buruz oro ezagutzen badute, lehen mailako Ofizialak izango dira.

**Bi kolore edo gehiagoko tipografia-birakariko makinariak:** Langile horiek kolore batean inprimatzen duen birakariko Makinariari ezarritako baldintza guztiak dituzte, inprimatzeko bi gorputz edo gehiago daudela kontuan izanik. Definizio honetan orriko eta erretiratzeko makinan lan egiten duten langileak ere barne hartuta daude. Lehen mailako Ofizialak izango dira.

**Errotoplana eta errotobobina makinetakoinariak:** Langile horiek kolore batean edo askotan inprimatzen duten birakarikiak erabiltzeko gaitasuna dute. Makina horiek ez dute doitze ezin hobea eta zeta-papera eta paperezko bilgarriak tinbratzeko erabiltzen dira. Edozein lan mota —kolore batean edo bi koloretan— inprimatu ahal badute, eta inprimatzeko tipografia-teknika guztiak eta kolore-nahasketari buruz oro ezagutzen badute, lehen mailako Ofizialak izango dira.

**Kolore bakar batean «offset» bidez inprimatzeko makinariak:** Langile horiek mota horretako makina gidatzeko behar den ezagutza dute. Edozein lan mota —kolore batean edo bi koloretan— inprimatu ahal badute, eta inprimatzeko tipografia-teknika guztiak eta kolore-nahasketari buruz oro ezagutzen badute, lehen mailako Ofizialak izango dira.

**«Offset» bidez bi koloretan inprimatzeko makinariak:** Langile horiek bi koloretan edo gehiagotan inprimatzeko offset makinak gidatzen dituzte, inprimatzeko teknika ezagutzen dute, baita koloreak nahasteko teknika ere. Adierazitako makina plegu solteek edo bobinek elika dezakete. Lehen mailako Ofizialak izango dira.

**Kolore batean inprimatzen duen kalkografia birakariko makinariak:** Langile horiek mota horretako makina gidatzeko behar den ezagutza dute. Lehen mailako Ofizialek beltzean edo koloretan inprimatzeko gaitasuna izango dute, eta kalkografia bidez inprimatzeko teknika oso ondo ezagutuko dute, baita tintak nahasteko teknika ere.

**Bi koloretan edo gehiagotan inprimatzeko kalkografia birakariko makinariak:** Langile horiek bi koloretan edo gehiagotan inprimatzen duten makina mota horiek erabiltzeko gaitasuna dute, inprimatzeko teknika ezagutzen dute, baita koloreak nahasteko teknika ere.

**Kolore batean inprimatzen duen sakongrabaketa-makinako makinariak:** Ofizial horiek makina mota horietan edozein lan —beltzean edo koloretan— inprimatzeko gaitasuna dute. Makina horiek markatzaile automatikoez, plegu solteez edo bobinez elikatuta egon daitezke. Inprimatzeko teknika eta koloreak nahasteko teknika behar bezala ezagutzen duten langileak lehen mailako Ofizialak izango dira.

**Bi koloretan edo gehiagotan inprimatzen duen sakongrabaketa-makinako makinariak:** Langile horiek bi koloretan edo gehiagotan inprimatzen duen sakongrabaketa-makinak gidatzen dituzte. Makina hori markatzaile automatikoak, plegu solteek edo bobinek elika dezakete. Inprimatzeko teknika eta koloreak nahasteko teknika behar bezala ezagutzen duten langileak lehen mailako Ofizialak izango dira.

**Esmaltadores/as:** Son los y las operarios/as que aplican, manual o mecánicamente, el color de los espacios seleccionados en el grabado químico o mecánico debiendo conocer la preparación y mezcla de colores y barnices.

**Minervistas:** Son los y las operarios/as capacitados para conducir cualquier máquina del sistema llamado corrientemente minervas, en las que la platina y el tímpano son planos.

**Maquinistas de planocilíndricas:** Son los y las operarios/as aptos para conducir cualquier tipo de máquinas de las llamadas planas, en las que la forma de impresión está en una platina y el papel es llevado por un cilindro impresor.

**Marcadores/as:** Son los y las operarios/as que introducen manualmente los papeles en las máquinas de imprimir. Son Personal Oficial de tercera.

**Maquinistas de rotativa tipográfica a un color:** Son los y las operarios/as capacitados para el manejo de dicha máquina, en la que tanto el elemento impresor como el de la plancha son cilíndricos. Estas máquinas pueden ser alimentadas con pliegos sueltos o en bobina. Si cuentan con capacitación para imprimir todo tipo de trabajo a uno o más colores, conocen todas las técnicas tipográficas de impresión y todo lo referente a la mezcla de colores, serán Personal Oficial de primera.

**Maquinistas de rotativa tipográfica a dos o más colores:** Son los y las operarios/as que reúnen todas las condiciones señaladas al Maquinista de rotativa a un color, teniendo en cuenta que en la máquina existen dos o más cuerpos impresores. Se consideran incluidos en esta definición los y las operarios/as que trabajan en una máquina de cara y retiración. Tendrán la categoría de Personal Oficial de primera.

**Maquinistas de rotoplanas y rotobobinas:** Son los y las operarios/as capacitados para el manejo de máquinas rotativas a uno o varios colores que no disponen de un sistema de ajuste perfecto y utilizadas para el timbrado del papel seda y papel de envoltorios. Tendrán la categoría de Personal Oficial de primera quienes cuenten con capacitación para imprimir todo tipo de trabajo a uno o más colores, conozcan todas las técnicas tipográficas de impresión y todo lo referente a la mezcla de colores.

**Maquinistas de «offset» a un solo color:** Son los y las operarios/as que poseen los conocimientos necesarios para conducir una máquina de esta denominación. Tendrán la categoría de Personal Oficial de primera quienes estén capacitados para imprimir todo tipo de trabajos a uno o más colores, conozcan todas las técnicas de impresión y todo lo referente a la mezcla de colores.

**Maquinistas de «offset» a dos colores:** Son los y las oficiales que conducen máquinas offset de dos o más colores, conociendo la técnica de la impresión, así como la de la mezcla de colores, pudiendo ser alimentada con pliegos sueltos o bobinas. Tendrán la categoría de Personal Oficial de primera.

**Maquinistas de calcografía rotativa a un color:** Son los/as operarios/as que poseen los conocimientos necesarios para conducir una máquina de esta denominación. Los Oficiales de primera estarán capacitados para imprimir en negro o color, conocerán profundamente la técnica de la impresión calcográfica y la mezcla de tintas.

**Maquinistas de calcografía rotativa a dos o más colores:** Son los y las operarios/as con capacitación para la impresión de esta clase de máquinas en dos o más colores, conociendo la técnica de la impresión, así como la mezcla de colores.

**Maquinistas de huecograbado a un color:** Es el personal Oficial capacitado para la impresión de toda clase de trabajo en negro o color en este tipo de máquinas ya sean alimentadas con marcador automático, pliegos sueltos o bobinas. Quienes conozcan perfectamente toda la técnica de impresión, así como la mezcla de colores, serán Personal Oficial de primera.

**Maquinistas de huecograbado a dos o más colores:** Son los y las operarios/as que conducen una máquina de huecograbado a dos o más colores ya sea alimentada con marcador automático, pliegos sueltos o bobinas. Serán Personal Oficial de primera quienes conozcan perfectamente toda la técnica de impresión, así como la mezcla de colores.

**Erliebean inprimatzen duten makinariak:** Langile horiek edozein lan mota —beltzean edo koloretan— erliebean inprimatzeko gaitasuna dute, erliebean inprimatzeko teknika jakin behar dute, baita tintak nahasteko teknika ere. Adierazitako zeregin guztiak hobezintasunez egiteko gaitasuna duten langileak lehen mailako Ofizialak izango dira.

**Kolore batean inprimatzeko flexografia-makinetako makinariak:** Ofizial horiek, flexografia-makinetako teknika bereziari buruz behar bezalako ezagutza izanik, makina horiek abian jarri ditzakete, baita martxan jarraitzeko moduan jarri ere, eta adierazitako makinek egin ditzaketen lan mota guztiei dagokienez, erantzukizun osoa izango dute.

**Bi koloretan edo gehiagotan inprimatzen duten flexografia-makinetako makinariak:** Langile horiek, flexografia-makinetako teknika bereziari buruz behar bezalako ezagutza izanik, makina horiek abian jarri ditzakete, baita martxan jarraitzeko moduan ere jarri ahal ditzuzte, eta makina horiek egin ditzaketen lan mota guztiei dagokienez, erantzukizun osoa izango dute, baita koloreen nahasketei dagokienez ere.

**Paper jarraituan inprimatzen inprimatzeko makinetako makinariak:** Langile horiek, dagokien teknika behar bezala jakinda, administrazio mekanizazio-ekipoetarako inprimakiak egiten dituzten makinetan lan egiten dute batez ere. Paper-bobina batekin edo gehiagorekin lan egin dezakete, tartekatzen —zurian edo koloretan—, baita tinta batekin edo gehiagorekin ere. Makina horiek abian jarri ditzakete, baita lanean jarraitzeko moduan ere, eta makina horietan egin daitezkeen lanei dagokienez, erantzukizun osoa izango dute, baita koloreen nahasketei dagokienez ere.

**Pantailen (serigrafia) egileak:** Langile horiek testuen muntaietatik, lerroko grabatuetatik eta erretikulatutik abiatuta, inprimaketa serigrafikorako pantailak emulsionatu, intsolatu eta errebelatzen dituzte.

**Serigrafiako inprimatzailea:** Ofizial horrek inprimaketa serigrafikoa egiten duen makina oro —automatikoa, erdiautomatikoa edo eskuz erabiltzen dena— gidatzeko gaitasuna du. Lehen edo bigarren mailako Ofizialen kategorian duen langileak bakarrik gidatu ahal izango du makina automatikoa.

**Luxuzko koadernatzaileak:** Langile horiek luxuzkoak izeneko liburuak koadernatzen dituzte. Urreztatze mota guztiak eskuz egiten jakin beharko dute, larreak txiflatzen eta jaspeztatzen, baita zizelkatzen edo estaltzen ere. Lehen mailako Ofizialak izango dira.

**Liburuaren eta dokumentuaren berriztatzailea:** Langile horiek balio historikoa edo artistikoa duten eta hondatuta dauden liburuak eta dokumentuak konpondu edo berriztatzen dituzte, eta luxuzko koadernaketaren teknikak ezagutu behar dituzte. Lehen mailako Ofizialak izango dira, 1,90ekin, bigarren mailako Ofizialak 1,70ekin eta hirugarren mailako Ofizialak 1,55ekin.

**Eskuzko edo prentsa bidezko urreztatzaileak:** Langile horiek, luxuzko koadernaketaren barnean, eskuz edo prentsa bidez urreztatzen dute.

**Liburuaren ertzen urreztatzaileak:** Langile horiek, luxuzko koadernaketaren barnean, liburuaren ertzak urreztatzen dituzte.

**Erakusmahaiako Ofizialak:** Langile horiek koadernaketa-lan guztiak egiten dituzte osagai mekaniko laguntzaileekin. Duten lanbidearen ezaugarriak kontuan izanik, agintzen zaie eginkizun oro betetzen dute, horretaz gain, makina laguntzaileak erabiltzen dituzte.

**Koadernatzeko makina nagusietako makinariak:** Langile horiek, koadernatzen jakinda, espezialitate horretako berezko eginkizunak automatizatzen dituzten makinak erabiltzen dakite, baita makina horiek abian jartzen eta gidatzen ere.

**Gillotinatzaileak:** Langile horiek hortz bateko edo askotako gillotina mota oro erabiltzeko gaitasuna dute.

#### LANBIDE OSAGARRIAK

**Koadernaketako maneiatzaileak:** Koadernaketa-lantegietako lan-zikloaren barnean, langile horiek lanbidearen eragiketa tipikoak egiten dituzte, zenbait kasutan makina laguntzaileak erabiliz.

**Maquinistas de relieve:** Son los y las oficiales capacitados para la impresión en máquinas de relieve de toda clase de trabajos en negro o en color, debiendo conocer la técnica de la impresión en relieve, así como la mezcla de tintas. Tendrán la categoría profesional de Personal Oficial de primera quienes estén capacitados para realizar perfectamente todas las tareas reseñadas.

**Maquinistas de flexografía a un color:** Son los y las oficiales que, con perfecto conocimiento de la técnica especial de máquinas flexográficas, son capaces de ponerlas en orden de marcha y desarrollo con plena responsabilidad, en los más variados trabajos que en las mismas puedan efectuarse.

**Maquinistas de flexografía a dos o más colores:** Son los y las oficiales que, con perfecto conocimiento de la técnica especial de estas máquinas, son capaces de ponerlas en marcha y desarrollo, con plena responsabilidad de los más variados trabajos que en las mismas pueden efectuarse, así como lo relacionado con las mezclas de colores.

**Maquinistas de máquinas para imprimir formularios en papel continuo:** Son los y las oficiales que, con perfecto conocimiento de la técnica correspondiente, trabajan en máquinas dedicadas principalmente a impresos para equipos de mecanización administrativa. Pueden trabajar con una o más bobinas de papel, en blanco o de color, para intercalar, así como a una o varias tintas. Son capaces de ponerlas en orden de marcha y desarrollo, con plena responsabilidad, de los más variados trabajos que en las mismas puedan efectuarse en los diferentes sistemas de impresión.

**Confeccionadores/as de pantallas (serigrafía):** Son los y las oficiales que, a partir de montajes de textos y grabados de línea y reticulado realizan las diferentes operaciones de emulsionado, insolación y revelado de pantallas destinadas a la impresión serigráfica.

**Impresor/a de serigrafía:** Es el o la oficial capacitado para conducir cualquier máquina de impresión serigráfica, bien sea automática, semiautomática o manual. Se considera que solamente podrán conducir una máquina automática el o la operario/a que tenga categoría de Personal Oficial de primera o segunda.

**Encuadernadores/as de lujo:** Son los y las operarios/as que encuadernan libros llamados de lujo. Deberán conocer el dorado en todas sus manifestaciones a mano, chiflar y jaspear pieles, incluido el entallado o cubierto. Serán Personal Oficial de primera.

**Restaurador/a de libros y documentos:** Son los y las operarios/as que reparan o restauran libros y documentos deteriorados de valor histórico o artístico, debiendo de conocer las técnicas de la encuadernación de lujo. Serán Personal Oficial de 1.<sup>a</sup> con 1,90, Personal Oficial de 2.<sup>a</sup> con 1,70 y Personal Oficial de 3.<sup>a</sup> con 1,55.

**Doradores/as a mano o prensa:** Son los y las operarios/as que, dentro de la encuadernación de lujo, se dedican al dorado a mano o a prensa.

**Doradores/as de cortes:** Son los y las operarios/as que, dentro de la encuadernación de lujo, se dedican al dorado de cortes de libros.

**Personal Oficial de mostrador:** Son los y las operarios/as que realizan el conjunto de operaciones de encuadernación con elementos mecánicos auxiliares, realizando cualquier labor que se les encomiende dentro de las características del oficio, incluyendo el manejo de máquinas auxiliares.

**Maquinistas de máquinas principales de encuadernación:** Son los y las operarios/as que, con conocimiento de encuadernación, conocen el manejo, puesta a punto y conducción de las máquinas que automatizan las labores propias de la especialidad.

**Guillotineros/as:** Son los y las operarios/as capacitados para manejar cualquier tipo de guillotina de un corte o de varios.

#### OFICIOS COMPLEMENTARIOS

**Manipuladores/as de encuadernación:** Son quienes, dentro del ciclo de trabajo de los talleres de encuadernación, realizan operaciones típicas del oficio, manejando en algunos casos máquinas auxiliares.

*Landare-hariz josten duten makinetak gidariak:* Langile horiek landare-hariz josten duten makinak erabiltzen dakite, baita horien funtzionamendua ere. Horretaz gain, makina horien bera-riazko lanak egiten dituzte.

*Flexografia-makinetak gidariak:* Langile horiek honako lan hauek egiten dituzte: papera elikatu, kendu, eta erabili, baita inprimaketaren martxa zaindu ere, betiere makinaren produkzioaz arduratzen diren Ofizialen agindupean egonik.

*Fotokonposizioko teklalari zuzentzaileak eta batera-egileak:* Langile horiek, tipografia, gramatika eta mekanografia ezagutuz, eta lanbide-heziketako, tipografiako, edo antzeko ikastetxeetan ikasiak izanik, sistemei loturiko teklatueta konposizioak, zuzenketak eta uztartze-lanak egiten dituzte, baita testuak kodifikatu, alfabetizatu eta sailkatu ere, betiere sistemak ahalbidetzen badu. Hori guztia agindu orokorrak kontuan izanda.

Pantaila grafikoak edo eskanerrak akoplatzeko aukera duten sistemei dagokionez, adierazitako langileek sistema horiek nola erabiltzen diren jakin behar dute, bai irudiaren digitalizazioari dagokionez, baita lantzen den testuaren lekuari dagokionez ere.

Makina filmatzaile bati akoplatutako teklatueta lan egiten badu, material sentikorra kargatu beharko dute eta makinatik ateratzen den materiala bildu eta errebelatu, betiere lantokian dauden prozedurei jarraiki.

Urte batean honako hau produzitu beharko dute gutxienez:

- Hamar mila pultsazio orduko: Lehen mailako Ofizialak.
- Bederatzi mila pultsazio orduko: Bigarren mailako Ofizialak.
- Zortzi mila pultsazio orduko: Hirugarren mailako Ofizialak.

Hori guztia makinaz eta tarte bikoitzez argi eta garbi gaztelaniaz edo Estatuko beste edozein hizkuntza ofizialetan (probaldian langileak aukeratuko du hizkuntza) idatzitako originalarekin, eta testu jarraituaren konposizioa izango du, justifikatu gabe. Pultsazio horiei dagokionez, testuan izandako milako bi akats edo huts onartuko dira gehienez ere.

Hirugarren mailako Ofizialen kategoriari dagokionez, egokitzaldia hamabi hilabete izango da gehienez ere. Aldi hori igarotakoan, lanpostuaren definizioa betetzen duela egiaztatutakoan, bigarren mailako Ofizialen lanpostua beteko du automatikoki.

Horago adierazitako hiru ofizialen kategorian horietako batean gaur egun sailkatuta dauden langileei beren kategorian dagokien puntuazioarekin finkatzeko, horago emandako definizioan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute, baita bertan ezartzen diren eginkizun guztiak betetzen dituztela ere.

Orain arte baldintza onuragarri gisa baliatzen ziren kalifikazioak eta lanaldiak errespetatuko dira.

*Fotokonposizioko teklalaria:* Langile horrek, tipografiari, gramatikari eta mekanografiari buruz behar adinako ezagutza izanik, eta aginduak eta kode orokorrak argi eta zehatz ematen bazaizkio, testuak sartzen ditu, eta horretarako PC teklatu zuzentzaileak erabiltzen ditu —pantaila edo teklatu sofistikatuagoekin—, baina azken horietatik konposizio-eginkizunak bakarrik erabiltzen ditu. Langile horrek bere esku dauden teklatuaren ahalbideak kontuan izanik, edozein lan egiteko gaitasuna izan behar du.

Paperezko zintan eta euskarri magnetikoan (diskoak, floppyak, zinta magnetikoa, eta abar) egindako lanak grabatu beharko ditu, edota, sistemak ahalbidetzen badu, dagozkien artxibategietan edo filmazioan:

- Urte batean honako hau produzitu beharko du gutxienez:
- Hamabi mila pultsazio orduko: Lehen mailako Ofizialak.
  - Hamar mila pultsazio orduko: Bigarren mailako Ofizialak.
  - Zortzi mila pultsazio orduko: Hirugarren mailako Ofizialak.

Hori guztia makinaz eta tarte bikoitzez argi eta garbi gaztelaniaz edo Estatuko beste edozein hizkuntza ofizialetan (probaldian langileak aukeratuko du hizkuntza) idatzitako originalarekin, eta testu jarraituaren konposizioa izango du, justifikatu gabe. Pultsazio horiei dagokionez, testuan izandako milako bi akats edo huts onartuko dira gehienez ere.

*Personal Conductor de máquinas cosedoras con hilo vegetal:* Son quienes conocen el manejo y funcionamiento de las máquinas de coser con hilo vegetal, atendiendo los trabajos propios de las mismas.

*Personal Conductor de máquinas flexográficas:* Son quienes efectúan las labores de alimentar, retirar, manejar el papel y vigilar la marcha de la impresión actuando bajo las órdenes del Personal Oficial encargado de la producción de la máquina.

*Personal Teclista corrector-compaginador de fotocomposición:* Es el o la operario/a que, con dominio de la tipografía, gramática y mecanografía y procedente de escuelas profesionales, cajistas o similares, realiza los trabajos de composición, corrección y compaginación en teclados conectados a sistemas, así como codificación, alfabetización y clasificación de textos, siempre que el sistema lo permita, a partir de las instrucciones generales.

En los sistemas con posibilidad de acoplamiento de pantallas gráficas o scanners, deberá tener conocimiento total del uso y manejo, tanto en lo que se refiere a la digitalización de la imagen, como a su posicionamiento dentro del texto tratado.

En el caso de trabajar en teclados acoplados a una filmadora, deberá cargar el material sensible, recoger el material de salida de máquina y proceder al revelado, siguiendo los procedimientos existentes en el centro de trabajo.

Tendrá la producción mínima manual siguiente:

- Diez mil pulsaciones/hora: Personal Oficial 1.<sup>a</sup>.
- Nueve mil pulsaciones/hora: Personal Oficial 2.<sup>a</sup>.
- Ocho mil pulsaciones/hora: Personal Oficial 3.<sup>a</sup>.

Todo ello a base de original claramente escrito a máquina y doble espacio, y redactado en castellano o cualquier otro idioma oficial del Estado (y a efectos de la prueba de aptitud el idioma será a elección del trabajador/a) y en composición sin justificar, de texto seguido. En estas pulsaciones, se admitirá como máximo un dos por mil en concepto de faltas o erratas en el texto.

En cuanto a la categoría de Personal Oficial de 3.<sup>a</sup>, el periodo de adaptación será de un máximo de doce meses, pasados los cuales y previa demostración del cumplimiento de la definición del puesto de trabajo, pasará automáticamente a desempeñar el puesto de Personal Oficial de 2.<sup>a</sup>.

El personal operario que, en la actualidad, estuviese clasificado en cualquiera de las tres categorías de personal oficial antes mencionadas, para consolidar su categoría con la puntuación correspondiente, deberá acreditar, mediante las pruebas oportunas, que reúne todos los requisitos y desempeña todas las tareas que se establecen en la anterior definición.

Se respetarán las calificaciones y jornadas que se vengán disfrutando como condición más beneficiosa.

